

VITAL FUNDAZIOAREN GELAK ALDI BATERAKO LAGATZEKO ETA ERABILTZEKO ARAUAK VITAL FUNDAZIOA KULTURUNEA

- Ongizate, laguntza eta/edo kultura elkarte edo erakundeak eta Vital Fundazioarekin lankidetz hitzarmena duten elkarte edo erakundeak
- Jendearentzako irekiak ez diren ekitaldiak antolatzen dituzten Irabazi-asmodun erakundeak pribatuak

ONGIZATE, LAGUNTZA ETA/EDO KULTURA ELKARTE EDO ERAKUNDEAK ETA VITAL FUNDAZIOAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA DUTEN ELKARTE EDO ERAKUNDEAK

Araudiaren helburua

Vital Fundazioa Kulturunearen aretoen lagapena eta erabilera arautzea du helburu araudi honek, ekitaldi eta jarduera **doakoak eta jendearentzako irekiak** burutzeko, baita lagapen horren baldintza orokorrak nahiz bereziak zehaztea ere. Edozein kasutan, lagapen hori Vital Fundazioak aurretiaz baimena ematearen mende egongo da, beti.

Gelak lagatzeko laguntza ekonomikoa

Aretoak	Prezioa*	Lagapen-ordutegia
A aretoa	60 €	Astelehenetik ostiralera, 18:30etik 21:00etara
B aretoa	30 €	<i>Ordutegi horretatik kanpoko eskaeretarako, kontsulta ezazue Vital Fundazioan</i>

* BEZ barne

Eskaerak

Eskatzaileak kontu korrontea izan beharko du bere izenean Kutxabanken, eta horren bitartez bideratuko du erreserba.

Erreserbarako gehieneko epealdia: Hurrengo hiru hilabeteetan egingo diren jardueretarako eskaerak baino ez dira onartuko.

Prozedura: Zure eskera jasotzen duenean, Vital Fundazioak erreserba baieztatuko du, eskatu den data libre badago. Erreserbaren baieztapena jaso ostean, eskatzaileak zehaztu zaion zenbatekoaren % 100 ingresatu beharko du **ES47 2095 3140 56 1090177527** kontu-zenbakian eta ordainketaren frogagiria bidali beharko du jarraian zehaztuko den posta elektronikora, aretoaren erreserba burututa geratu dadin: aulasvital@fundacionvital.eus (kontzeptuan, zehaztu eskatzailearen izena).

Deuseztatzeak

Erreserba bertan behera utzi beharko balitz, mezua bidali beharko da goian aipatu den posta elektronikora, eta bertan, erreserbaren xehetasunak (elkartea, data, ordua ... e.a.) eta deuseztatzearen arrazoiak adieraziko dira. Diru-itzulketarako honako baldintza hauek ezarri dira:

- Deuseztatzea erreserbatu den datarako 30 egun edo gehiago falta direnean egiten bada, ordaindutakoaren % 100 itzuliko da.
- Deuseztatzea erreserbatu den datarako 30 eta 15 egun bitartean falta direnean egiten bada, ordaindutakoaren % 70 itzuliko da.
- Deuseztatzea erreserbatu den datarako 15 egun baino gutxiago falta direnean egiten bada, ordaindutakoaren % 50 itzuliko da.

Erabilera-araudia

Vital Fundazioaren aretoen lagapenean hartzen badira, egoki erabili behar dira lagapen-epealdi osoan eta gunerako ekipamendu egokia erabilita, jarraian zehaztuko diren arauak jarriki:

1. Instalazioen manipulazioa eta laguntza teknikoa Vital Fundazioko langile adituek baino ez dute egingo.
2. Antolatzaileek marka-elementurik erabili nahi badute ekitaldirako, Vital Fundazioaren erakunde-elementuak aldatu gabe egin beharko da.
3. Erakunde eskatzaileak edo erakunde hori ordezkatzeko duten pertsonak edo pertsonak bere gain hartuko dute ekitaldia burutzen den bitartean instalazioetan eragin litekeen edozein kalte, beti ere kalte hori araudi honetan jasotzen diren baldintzak eta arauak ez betetzeagatik eragin bada.
4. Guneak duen aforoa errespetatu beharko da, eta eskatzailearen ardura izango da hori kontrolatzea. Jabetzak finkatu dituen erabilera-baldintzak betetzeko konpromisoa hartu du eskatzaileak, baita aforoari, segurtasunari, higiene nahiz osasunari eta egile eskubideei buruz indarrean dauden lege-arauak, eta ekitaldiaren antolaketari eta garapenari eragin diezaziekeen beste edozein arau betetzeko konpromisoa ere.
5. Janaria eta edaria horretarako berariaz egokituta dauden guneetan baino ezin daitezke kontsumitu; gainera, aldez aurretik hitzartuta egon behar du, eta erregistratuta dagoen catering enpresa batek hornituta izan behar du.
6. Ezin daitezke eskatzailearekin zerikusia duten elementuak edo argitalpenak saldu.
7. Vital Fundazioak lagapena deuseztatzeko eskubidea du, beti ere aurretiaz jakinarazita.
8. Ezin daitezke borondatezko ekarpenak bildu elkartasun-ekimenetarako edo beste mota batzuetako helburuetarako.

JENDEARENTZAKO IREKIAK EZ DIREN EKITALDIAK ANTOLATZEN DITUZTEN
IRABAZI-ASMODUN ERAKUNDEAK PRIBATUAK

Araudiaren helburua

Vital Fundazioa Kulturunearen aretoen lagapena eta erabilera arautzea du helburu araudi honek, ekitaldi eta jarduera **pribatuak eta jendearentzako ez irekiak** burutzeko, baita lagapen horren baldintza orokorrak nahiz bereziak zehaztea ere. Edozein kasutan, lagapen hori Vital Fundazioak aurretiaz baimena ematearen mende egongo da, beti.

Aretoak lagatzeko laguntza ekonomikoa

Aretoak	Egun erdia*	Egun osoa*
A aretoa	500 €	800 €
B aretoa	400 €	600 €

* BEZ barne

Astelehenetik ostiralera:

Egun erdia: goizez (09:00 - 14:00) edo arratsalde (16:00 – 21:00)

Egun osoa: 09:00etatik 21:00etara

Konsultatu ordutegi bereziak edo asteburuak

Eskaerak

Eskatzaileak kontu korrantea izan beharko du bere izenean Kutxabanken, eta horren bitartez bideratuko du erreserba.

Erreserbarako gehieneko epealdia: Hurrengo hiru hilabeteetan egingo diren jardueretarako eskaerak baino ez dira onartuko.

Prozedura: Zure eskera jasotzen duenean, Vital Fundazioak erreserba baieztatuko du, eskatu den data libre badago.

Erreserbaren baieztapena jaso ostean:

- Eskatzaileak zehaztu zaion zenbatekoaren % **20**, BEZ barne, ingresatu beharko du **ES47 2095 3140 56 1090177527** kontu-zenbakian eta ordainketaren frogagiria bidali beharko du jarraian zehaztuko den posta elektronikora, aretoaren erreserba burututa geratu dadin: aulasvital@fundacionvital.eus (kontzeptuan eskatzailearen izena adierazi behar da).
- Gainerako % **80aren** ordainketa aretoa erreserbatu den ekitaldia burutu ostean egingo da.

Deuseztatzeak

Erreserba bertan behera utzi beharko balitz, mezua bidali beharko da goian aipatu den posta elektronikora, eta bertan, erreserbaren xehetasunak (eskatzailearen izena, data eta erreserbatutako orduak ... e.a.) eta deuseztatzearen arrazoia adieraziko dira.

Diru-itzulketarako honako baldintza hauek ezarri dira:

- Deuseztatzea erreserbatu den datarako 15 egunetik gora falta direnean egiten bada, aurretiaz ordaindutakoaren % 20 itzuliko da.

- Deuseztatzea erreserbatu den datarako 15 egun baino gutxiago falta direnean egiten bada, ez da aurretiaz ordaindutakoa itzuliko.

Erabilera-araudia

Vital Fundazioaren aretoak lagapenean hartzen badira, egoki erabili behar dira lagapen-epealdi osoan eta gunerako ekipamendu egokia erabilita, jarraian zehaztuko diren arauak jarriki:

1. Instalazioen manipulazioa eta laguntza teknikoa Vital Fundazioko langile adituek baino ez dute egingo.
2. Antolatzaileek marka-elementurik erabili nahi badute ekitaldirako, Vital Fundazioaren erakunde-elementuak aldatu gabe egin beharko da.
3. Erakunde eskatzaileak edo erakunde hori ordezkatzeko duten pertsonak edo pertsonak bere gain hartuko dute ekitaldia burutzen den bitartean instalazioetan eragin litekeen edozein kalte, beti ere kalte hori araudi honetan jaso diren baldintzak eta arauak ez betetzeagatik eragin bada.
4. Guneak duen aforoa errespetatu beharko da, eta eskatzailearen ardura izango da hori kontrolatzea. Jabetzak finkatu dituen erabilera-baldintzak betetzeko konpromisoa hartu du eskatzaileak, baita aforoari, segurtasunari, higiene nahiz osasunari eta egile eskubideei buruz indarrean dauden lege-arauak, eta ekitaldiaren antolatetari eta garapenari eragin diezaziekeen beste edozein arau betetzeko konpromisoa ere.
5. Janaria eta edaria horretarako berariaz egokituta dauden guneetan baino ezin daitezke kontsumitu; gainera, aldez aurretik hitzartuta egon behar du, eta erregistratuta dagoen catering enpresa batek hornituta izan behar du.
6. Ezin daitezke eskatzailearekin zerikusia duten elementuak edo argitalpenak saldu.
7. Vital Fundazioak lagapena deuseztatzeko eskubidea du, beti ere aurretiaz jakinarazita.
8. Ezin daitezke borondatezko ekarpenak bildu elkartasun-ekimenetarako edo beste mota batzuetako helburuetarako.